

# Rol jolasa

**Maiden IANTZI  
GOIENETXE**

**U**nax sagua, ama sagua», erra-  
ten dit. Edo: «Unax ama,  
ama umea». «Unax usoa,  
ama usoa», eta besoak zabal-  
du eta hegaka ateratzen gara. Rol jolase-  
kin hasi berri da etxeko txikia eta, bera-  
rekin batera, ni. Gustuko dut,  
interesgarria eta gozagarria zait. Eta,  
Unaxekin sarri gertatzen zaidan bezala,  
zabaltzen laguntzen dit. Ikusi ditut rol  
jolasarekin deseroso sentitu diren hel-  
duak, bereziki haurra bertze haur baten  
azalean sartu denean: «Unax Pau». «Ez,  
ez; zu, Unax». Zer erranik ez helduari  
bertze heldu baten izena eman dionean.  
Ulertzen ditut.

“Nire” aulkian jaten dut egunero eta  
aitortzen dut batzuetan –maiz, gehiene-  
tan?– ez dudala ideiarik ere parean du-  
danaren barrenak mugitzen dituenari  
buruz. Pilatesen “nire txokora” joaten  
naiz zuzen, eta okupatua badago eta  
bertze nonbait jarri behar badut ez naiz  
hain seguru edo eroso egoten.

Berezia da gutako bakoitza eta hala  
sentitzeko beharra dugu. Hala ere, eta  
esperientziaz diot, berezi sentitze ho-  
rrek baditu mugak eta arriskuak. David  
Vico filosofoak honela dio: «Bereziak ga-  
ra, bai. Zabor poltsa bakoitza ere berezia  
da». Inori zabor deitu gabe, umorez  
mintzo da, umiltasunez.

Aunitz aipatzen da autoezagutza, eta  
Vicok ohartarazten du gure burua ber-  
tzeekin ezagutzen dugula. Ingurukoekin  
harremanean: solasean, isilik edo ezta-  
baidan. Ondokoak ispilu zaizkigu, ala  
kontraste. Batzuetan kontraste izatea  
nahi genuke eta ispilu dira eta horrega-  
tik haserrearazten gaituzte. Atomiza-  
tuak gaude, klase ertain altua, ertain er-  
taina eta ertain baxua bereizten  
saiazteraino, gehienok klase berekoak,  
langileak, garela ahantzita. Bizian  
gehien lagundu didan ikasgaietako bat  
izan da zer antz handia dugun eta zein  
gauza antzekoak gertatzen zaizkigun  
ohartzea, berberak ez errateagatik. •

# Alardean bakea?

**Xabier Mikel  
ERREKONDO**

**E**z naiz ni alarde-zale, akaso alar-  
de-goragale... Badira diotenak  
bertakoak baino ez direla nor  
auziaz erabakitzeke eta iritzia  
emateko. Jarrera itxiek beldurra diete  
pentsamendu eta iritzi ezberdinei. Nik  
bat emango dut.

Atzo lehertu ziren danbor eta tiro ho-  
tsak Irungo Alardean eta irailaren 8an  
entzungo dira Hondarribian. Alarde  
Tradizionalaren jarrera guztiz itxita da-  
go lehenean; bigarrenean, aldiz, badiru-  
di herritarren gehiengo konfronta-  
zioari irtenbidea ematearen aldekoa  
dela. Argazki horren ondorio da Abo-  
tsanitz plataformak EAJri alkatetza ken-

du eta 28 urteko agintaldi hertsia leher-  
tu izana.

Udal Gobernu berriak irtenbidearen  
bilaketa herritarrekin batera egin nahi  
omen du. Bejondeiela. Asma dezatela.  
Edo hori edo zauria ez da orbainduko.  
Egun hauetan, baina, beste proposamen  
zehatz bat kaleratu da: Alarde mistoa  
Tradizionalari erantsitako 17. Konpai-  
nian integratzea. Alegia, onartu bai, bai-  
na berezita, aparte... Ez dakit zer pen-  
tsatuko duten bertakoe, beraiena da  
erabakia, baina proposamen xelebreak  
degaitasuna duten pertsonen auzia  
ekarri dit gogora; hots, gizarteak horiek  
nola barne biltzen dituen.

2015ean Usurbilen egindako Kilome-  
troaken Gizarte Inklusiborako Dekalogo  
sinatu zuten Gipuzkoako 70 eragile so-  
zial, publiko eta pribatuk, eta nago Lehen  
Printzipioa hitzez hitz lotu dakiokela  
Alardearen auziari: «Kontua ez da (...) ‘arazoak dituzten horiek’ gizartean inte-  
gratzea, baizik eta (...) guztiok osatutako  
jendarte inklusiboa eraiki behar dugula».

Hortaz, integrazioan bestea onartzen da,  
baina aparte. Aldiz, jendarte inklusiboa,  
denak batera, pentsaera eta egoera  
anitzetako pertsonen osatzen dute eta es-  
kubide eta aukera berberak dituzte.

Hondarribitarrak, heldu anbizioari,  
heldu jendarte inklusiboa eraikitzeari. •